

KA Topaketa#17  
La Cantina (Donostia)  
Uztailak 31 Julio (Igandea/Domingo) 17:00h

Partaide berriak:

Ixak Oiartzabal (Musikaria)  
Xabi (Musikaria)  
Anais Ladam (Zeramista)  
Unai Maraña (Humorista)  
Vicente (Abokatua)  
Jose Manuel Blanco (Musikaria)

Udara izanik, Topaketa hau, modu lasaiagoan hartu da, hortaz, gai orokor batzuetaz hitz egingo da baina baita modu oso espontaneoan.

**--Egoera orokorra--** 300 partaide baino gehiago, KA sortu eta urte 1 eta 9 hilabetera.

**--Lan taldeen errepassoa:** Fanzine, 100KA, StopWar, GazteKA, Web, KA Zuzenean, Komunikazioa, Koordinazioa, Ikus entzunekoak, Plastika, Diseinua, Baimenak.

- **Kontuak**, aurreko Topaketan bezala daude. DSS2016-k esan digu 100KA-ren diru-laguntzaren bigarren zatia (8064 euro) 100 ekimenak amaitzean ordainduko dutela.

**--Proiektuak:**

100KA  
Zumea KA Fest  
IAUJA!  
Stop War  
Fanzine  
GAzteKA  
Ikusarazpena

- **KA-ren bigarren urteurrena?**

Iraila-Urria aldera KA-ren bigarren urteurrena da eta jaialdi multidisziplinari bat egitea pentsatu da. Hau aurrera eramateko, talde bat sortuko da.

Gainera, Open Space #3 egitea interesgarria dela ondorioztatzen da bi urte hauetan KA-k izan duen ibilbidea baloratzeko, plataformaren ibilbideko etapa ezberdinetan egon diren pertsonekin.

Irekita gelditzen da antolatzaile edo artista bezala parte hartzeko deialdia, ekimen hauetarako:

**- KA-ren kamiseten salmenta, artelanak...**

KA kamisetak ateratzea komentatzen da web bidez eta fisikoki saltzeko. Ideia, diseinu batzuk proposatzea da, baina baita bakoitzak bere gustuen arabera bereak egiteko erraztasunak eskaintzea ere.

Era berean, KA-ko partaideen artelanak, diskak, liburuak... saltzea proposatzen da. Hau web orrialdea kudeatzen duen taldearekin koordinatuta egingo da.

**- Ikusmira Logoa / KA**

Ikusmiraren logoari begirada bat bota zaio KA-ren logoarekin antzekotasun posiblea duelako. Erabakitzen da, ez dela arazo bat.

Jabego intelektualaz eta jabego industrialaz hitz egiten bada, Juanmarekin hitz egitea erabakitzen da, logoaren sortzailea, jakiteko ea ondo ikusten duen logoa, jabego intelektualean bere izenean erregistratzea.

**- Jendeak proposatutako gaiak:**

Rakel-ek komentatzen zuen beste aldi batzuetarako, hobea izango litzatekeela 100KA-ren programazioa ez balitz hain azkar egingo. Komentatzen da, deialdi ireki bat egin zela 100KA-ren kudeaketarako eta oso jende gutxi izan zela prest azaldu zena antolaketarako. Baita ere, 100KA antolatzeak suposatzen duen lanaren bolumena nabarmentzen da (programazioa, kartelak, altak, ordainketak...)

Unai Marañak Djembering jaialdia komentatzen du, Irailean Guardetxean ospatuko dena, kolaboratu nahi badugu. Horrez gain, Guardetxearen egoera komentatzen du. Bilerak egiten ari dira eragile ezberdinen artean, lokalaren kudeaketari nola aurre egin ikusteko.

Mattin Garikanok, KA-k geroz eta forma gehiago hartzen doala nabarmentzen du, pixkanaka kolaborazio gehiago lortzen direlako (adibidez, bere film laburrean KA-ko hainbat artistek parte hartu dute). Mattinek, crowdfunding metodoari eta bere antzekoei ere egiten die erreferentzia, interaktibitate eta bizi asko ematen baitie proiektuei.

Baita ere, komentatzen da ondo legokeela KA-ren manifestu bat egitea eta era berean, KA-ren ibilbide guztia argitaratzea, ez dela gutxi.

Kanif-ek komentatzen du ez dakiela KA modu egokian azaltzen eta KA sintetizatuko duten modu ezberdinez hitz egiten da.

Susanak, Siriaren aldeko talde bat sortzea proposatzen du. Proposatu nahi duenak, berarekin kontaktuan jar dadila edo email bat bidali dezala [info@kulturaalternatiboa.com](mailto:info@kulturaalternatiboa.com)

Komentatzen da, KA-k hainbesteko bolumena izanik, potentzial asko duela aldaketak, kritikak... eratzeko. Ondo legoke pixkanaka plataforma bezala dugun botereaz ohartzea eta hau erabiltzea.

Irailetik aurrera, proiektu eta ideiei berriz helduko diegu eta bigarren urteurrenean zentratuko gara.